

kritiken hemeroteka

4441 kritika

Honi buruz

Bilaketa

Hasiera

Azken kritikak

→ **Zoaz infernura, laztana**
Anjel Lertxundi
Amalia Alvarez→ **Axola ez duenean**
Aritz Gorrotxategi
Mikel Ayerbe→ **Aulki-jokoa**
Uxue Alberdi
Javier Rojo→ **Nora ez dakizun hori**
Irati Jimenez
Ion Olano→ **Azken bala**
Hasier Larretxea
Igor Estankona→ **Ihes-lerroak**
Xabier Altube
Bixente Serrano Izko→ **Ramon Saizarbitoriaren**
lehen eleberrigintza
Mikel Hernandez Abaitua
Beñat Sarasola→ **Alea**
Beñat Sarasola
Javier Rojo→ **Talatik tiroka**
Markos Zapiain
Mikel Asurmendi→ **Euskal kultura?**
Antton Luku
Itxaro Borda→ **Aulki-jokoa**
Uxue Alberdi
Igor Elordui→ **Haur besoetakoa**
Jon Mirande
Gorka Bereziartua→ **Suminez**
Philip Roth
Mikel Ayerbe→ **Bilbao-New York-Bilbao**
Kirmen Uribe
Javier Rojo

« Bizitza homeopatikoa | Haikuak eta aforismoak »

Intimitatea / Hanif Kureishi (*Harkaitz Cano*) / Txalaparta, 2008Intimitatea → Mikel Garmendia / *eizie.org*, 2008-11-07

Badira irakurketa batzuk, kontsiderazioak kontsiderazio, irakurri aurretik bezala uzten ez zaituztenak, barruak mugitzen dizkizutenak, eta horietako delako esango nuke Kureishiren *Intimitatea*. Aitorpen bat dugu izatez, zintzoa bezain mingarria, autobiografia moduan idatzitako fikzioa, nahiz eta egileak berak sekula argitu nahi izan ez duen benetan hala den. Kontuak kontu, irakurleak benetan sinetsiko dio aitorpena kontalariari —fikziozkoa izan ala ez—, eta irakurle bakoitzak izango du bere identifikatze-maila.

Probokatzailea da, nolana ere, eta halaxe bihurtu da hainbat eztabaidaren sorburu. Bada liburuaren literaturtasuna bera ere zalanztan jartzten duenik edo, bestela esanda, papereratutako testigantza edo aitorpen hutsa dela dioenik. Ez dugu hemen ebatziko, noski, literatura zer den eta zer ez. Liburuaren irakurketak utzi digun sententziak ariko gara besterik gabe. Zuzena da erabat estiloa, sintaxi lau eta ez korapilatsua. Lexiko mailan ere ez gaitu inola ere hiztegiak baliatzen behartzen. Gaia bera da, beraz, zirrara edo efektua sortzen duena. Protagonistak bikotearengandik bereizteko hartu duen erabakia nola hartu duen eta nola gauzatzen duen kontakutako digu zehatz-mehatz baina, batez ere, bere buruarekin izandako borrokaren berri emango digu. Gogor, mingarri, berekoi... hainbat adjektibo entzun eta irakurri ditzakegu aitorkizun honen gainean, baina esan beharra dago, nik uste, muga-mugara iristen bada ere, ez dela zinikotasunean erortzen. Aitzitik, emozioa da gailentzen dena.

Eta, oro har, gaiaren aldetik egiten badu ekarpenik interesagarriena, gai horren barruan berebiziko garrantzia duen kontzeptu bat agertuko zaigu: traizioa. Zilegi al da konnotazio negatiboak dituen jokamolde horretaz baliatzea, irtenbide bat al da traizioa, zer da, azken finean, traizio egitea edo nori egiten diogu traizio? Ez dira, ez, nolana ere kontuak eta, arestian esan bezala, barruko zerbait ukitzen diote irakurleari.

Harkaitz Cano izan dugu euskarazko bertsiorekin egile eta orain arte esandakoengatik (sintaxi soila, sustantiboak, adjektiboak eta abarrak arruntak...) aise sumatzekoa da itzulpen-lanak ez duela, printzipioz, konplikazio handiegirik erakusten. Hona, esate baterako, itzultzen erraz baina egundoko adierazkortasuna duten adibide pare bat, esandakoaren erakusgarri: "Altxatu nahi dudana gona bat da mundua" edota "...adimenaren demokratizazio behartua". Hasi eta buka irakurtzeko moduko bertsiak lortu du, halere.

Artxiboa

→ Ekaina 2009

→ Maiatza 2009

→ Apirila 2009

→ Martxoak 2009

→ Otsaila 2009

→ Urtarrila 2009

→ Abendua 2008

→ Azaroa 2008

→ Urria 2008

→ Iraila 2008

→ Abuztua 2008

→ Uztaila 2008

Aurreko urteak ↓

Hedabideak

→ Argia (568)

→ El Diario Vasco (550)

→ El Correo (518)

→ Egunkaria (503)

→ Berria (359)

→ Gara (309)

→ Deia (193)

→ El País (150)

→ Zeruko Argia (97)

→ Irunero (92)

→ Aizu! (70)

→ Hegats (62)

→ Besterik (970)